

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4821

1220/2020 EBAZPENA, urriaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Santa Marina Ospitaleko Erizaintzako zuzendari lanpostutik kentzen baita María Carmen Esparza Liberal andrea, jubilazioagatik.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 25eko 408/2011 Ebazpenaren bidez (2011ko apirilaren 13ko EHAA argitaratua), Santa Marina Ospitaleko Erizaintzako zuzendari izendatu zen María Carmen Esparza Liberal andrea.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Carmen Esparza Liberal andrea Santa Marina Ospitaleko Erizaintzako zuzendari lanpostutik kentzea, jubilazioagatik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu 2020ko abenduaren 1eko lanaldia bukatzen denetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Santa Marina Ospitaleko Zuzendaritzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.